

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

1626

AGINDUA, 2013ko martxoaren 25ekoa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, enpresa txiki eta ertainei, banako enpresarioei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko Programaren lehen deialdia argitara emateko dena.

183/2013 Dekretuak, martxoaren 19koak, enpresa txiki eta ertainei, banako enpresarioei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko 2013rako programa garatzen duenak, aipatu kolektiboek laguntzeko finantziazio-lerro bat irekitzen du, gehienez 600 milioi eurokoa, horien kapital zirkulatuak beharrei erantzuteko.

Dekretu horrek kreditua lortzeko baldintzak, onuradunak, baliabideen erabilgarritasuna eta maileguak lortzeko baldintzak arautzen ditu, baita elkarren bermerako sozietateen eta finantza-erakunde laguntzaileen aurrean finantzaketa-eskabideak izapidetzeko prozedura ere. Horretarako, Ogasun eta Finantza Sailak programara atxikitako elkarren bermerako sozietateekin eta finantza-erakundeekin hitzartu beharreko lankidetzak hitzarmenak izendatu ditu.

Aipatu dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, bidezkoa da finantzaketa-lerroaren lehen deialdia egitea eta horretarako behar diren arauak ezartzea. Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Agindu honen helburua martxoaren 19ko 183/2013 Dekretuan xedatutako finantzaketa-lerroaren lehen deialdia egitea da. Dekretu horren bidez, enpresa txiki eta ertainei, banako enpresarioei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko programa garatzen da 2013rako.

Finantza-erakunde laguntzaileek honako mailegu-kopuru hau emango dute: 280 milioi euro enpresa txiki eta ertainentzako, eta 20 milioi euro banako enpresario eta profesional autonomoentzako, betiere hurrengo deialdietan zenbateko hori handitzeko aukera alde batera utzi gabe.

I. eranskinean jasota dago elkarren bermerako sozietate laguntzaileen eta horien sukurtsalen zerrenda. II. eranskinean, finantza-erakunde laguntzaileen zerrenda dago jasota.

2. artikulua.– Eskabideak.

1.– Eskabideak eta gainerako agiriak elkarren bermerako sozietate laguntzaileen sukurtsaletan aurkeztu behar dira. Bulego horien zerrenda I. eranskinean dago.

2.– Eskabide-eredua eta formularioak agindu honen I. eranskinean agertzen diren sukurtsaletan eskuratu ahal dira, edo, baita ere, interneten, www.euskadi.net helbidean.

3.– Finantza-laguntza emateko programan sartzeko eskaerei agindu honen lehenengo artikuluan ezarritako mailegu-kopurua agortu arteko laguntza emango zaie, edo artikuluan ezarritako gehikuntzaren ondorioz ezarritakoa agortu artekoa. Elkarren bermerako sozietate laguntzaileetan sarrera ematen zaien hurrenkeraren arabera sartuko dira programan. Mailegu- eta kreditu-kopurua agortzen denean, Ogasun eta Finantzetako sailburuordearen ebazpen bidez emango da horren berri; ebazpena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2013ko apirilaren 4a, osteguna

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 25a.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GAZAGAECHERRIA BASTIDA.

I. ERANSKINA

ELKARREN BERMERAKO SOZINETATE LAGUNTZAILEAK

ELKARGI, S.G.R.: www.elkargi.es

Egoitza nagusia:

Mikeletegi pasealekua, 50
20009 Donostia
Telefonoa: 943 30 90 60
E-mail: elkargi@elkargi.es

Arabako Lurralde Zuzendaritza:

Posta kalea, 24-1.a
01001 Vitoria-Gasteiz.
Telefonoa: 945 23 12 12
E-mail: earaba@elkargi.es

Bizkaiko Lurralde Zuzendaritza:

Plaza Biribila, 4-2.a
48001 Bilbao
Telefonoa: 94 423 82 28
E-mail: ebizkaia@elkargi.es

Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza:

Mikeletegi pasealekua, 50
20009 Donostia
Telefonoa: 943 30 91 77
E-mail: egipuzko@elkargi.es

OINARRI, Gizarte Ekonomiarako Bermearen Sozietatea, E.B.S. www.oinarri.es

Egoitza nagusia: Arabako Teknologikari Elkarteak. E-3 eraikina, 2. solairua.

Miñao
01510 Vitoria-Gasteiz.
Telefonoa: 945 29 82 80
E-mail: sgr@oinarri.es

Bizkaiko Ordezkaritza:

Kale Nagusia, 38-8.a esk. Granada eraikina
48001 Bilbao
Telefonoa: 94 424 87 08
E-mail: bizkaia@oinarri.es

Gipuzkoako Ordezkaritza:

Idiakez kalea, 13-1.a, 6. bulegoa.
20004 Donostia.
Telefonoa: 943 44 66 60
E-mail: gipuzkoa@oinarri.es

II. ERANSKINA

FINANTZA-ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Bankuak:

- Kutxabank, S.A.
- Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.
- Banco Santander, S.A.
- Caixabank, S.A.
- Banco de Sabadell, S.A.
- Banco Popular Español, S.A.
- Bankinter, S.A.
- Bankoa, S.A.

Kreditu Kooperatibak:

- Euskadiko Kutxa
- Caja Rural de Navarra, S.C.C.